

KULTURALDIA 2020_BERTAN BEHERA UZTEA

PRENTSA TXOSTENA




Basaizea Kultur Batasunak 1979tik apirilean Kultur astea antolatzeko ardura hartua du. Aurten, **Kulturaldiaren 41.edizioa ez da iraganen**. Kulturaldia bere osotasunean ezeztatzearen erabakia hartu du Basaizea elkarteak, koronabirusaren ondorioz plantan ezarriak diren neurriak ikusirik. Hala ere, programatuak ziren ekitaldi hauetarik batzu beste noizbait proposatzea espero dugu.

Hilabete osoko Kulturaldia prestatu zuen alta Basaizeak, sei hitzordurekin.

Baigorriko Kulturaldia

ZAZPI HITZORDUAK



Martxoaren 29an, igandearekin, Baigorriko Plaza Xoko gelan.

16 :00: « Lur » Xake Produksioak : 7 urtetik goitiko haur eta gazteendako antzerkia

17 :00: Pausa musikala

18 :00: « Zaldi urdina » Axut !, Artedrama eta Dejabu konpainien azken sorkuntza

Apirilaren 9an, arratseko 8etan, Josu Martinez-en ANTI filmaren proiektzioa, Baigorriko Bil Etxea gelan

« 1921eko negua. Frantziaren alde lau urtez fronteetan borrokatu ondotik, soldadu joandako herritarrak Baxenafarroako Bizkarsoro herrixkara itzuli dira. Juduaren izar horia, agotaren belarria bezala, eskolan euskaraz mintzo diren haurrak, ANTI izeneko ziri mutur batekin seinalatuak dira. »



Apirilaren 11an, arratseko 8etan, **Ruper Ordorikaren kontzertua, Lasako gelan**

Ruper Ordorika ahots bereziko kantaria dugu, bere ezaugarrien artean: testu bikainak eta musikaltasun oparoa. Disko ezagun haundiak osatu ditu bere kantuekin, eta beste hiru, kantu zaharrekin, “Hiru Truku” taldean.



Ruper Ordorika maila gorenean dabil euskal musikan, dela berak idatzitako kantuekin, dela Bernardo Atxaga edo Joseba Sarrionandia bezalako idazleen testuekin. Oihartzun sakoneko abesti-egilea dugu.

Oraingoan Ruper Ordorika bere *Mugalaris*-ekin arituko da: Arkaitz Miner, Lutxo Neira, Hasier Oleaga.

Apirilaren 16an, arratseko 8etan, **mahai-ingurua, Jarapean Irulegin**

Elkartea ! kultura ! lagunak ! borroka ! nazioa ! legedia ! mugimenduak ! elkarlana ! Akitzeal ! inplikazioa ! laguntza ! Indibidualismoa ! bolondres ! legez-kanpo ! lana ! militantzia ! bilkura ! dinamika ! herria ! berdintasunak !

Azken urteotan elkarteen dinamiker buruz gogoetatzean, entzun eta erabili ditugun hitzak izan ohi dira hauek.

Batzuetan, laborantzan ager daitekeen bezala, legediak oztopatzen gaitu elkarlan honetan eta dena deklaratzeko bideratzen edo beste bidetik, legez-kanpo izaiten. Baina, gure inguruan ikus dezakegun gisara, elkarte anitzetan jende eskasa sendi da, edo beharba motibazio eskasa dela? Nola bizirik irauten dute gaur egungo elkarteek ? Nola antolatzen dira jendeak ez “erretzeko”? Ba ote da, antolakuntza bat bestea baino hobea denik jendea motibaturik egoiteko ? Lehen zen elkarlana, beti ba ote da ? Belaunaldien arteko transmisio lana egiten lortzen ote dugu ? Nola egin legediak oztopatzen duelarik elkarlan hori ? Azken finean, zerk sortzen ditu gora-behera horiek?

Galdera guzi hauei erantzun zuzenik ez dela argi dugu baina gertatzen ari den fenomeno aski berri huntaz gogoetatzen hasteko gogo piztu zauku. Gai hortaz hitz egiteko, gurekin izanen ditugu elkarte ezberdinetako kide batzuk (gaztetxe, komite, kultur eragile...) baita legediarengatik gaztigatuak izan diren laborari batzuk ere bai.

Gai honetaz solasean hasi girelarik, ohartu gira interes haundia sortu duela. Horretarako, zuei ere gai honi buruzko interesa sortu baitzaizue, proposatzen dizuegu talde baten osatzea hunen segitzeko. Gurekin harremanetan sartzeko, bidaliezaguzue email bat helbide elektroniko huntarat: basaizea@gmail.com

Apirilaren 16an, arratseko 9etan, Uztaritzeko txistulariak, Baigorriko trinketean

Uztaritzeko txistulariak bandak 2020.urte hastapen huntan bururatu berria duen 16tituluko, *Boa eta abar* diskoa presentatuko dauku.



Grabaketa hau azken bost urteetako errepikapen, animazioen eta kontzertuen lana finkatzeko parada izan da. Txistu errepertorio klasiko, sorkuntza, kunbia, balkanetako musika, formakuntza tradizionalen edo beste musika tresna edo musikarien laguntzarekin, Uztaritzeko txistulariek segitzen dute maite dituzten nahasketen egiten eta nahasketa horien fruituak dastatzen.

Apirilaren 25ean, arratseko 9etan, Zine-kontzertua, Baigorriko Plaza Xoko gelan.

Jazko zine-kontzertuaren arrakasta ikusi eta, aurten ere Chaplinen "Urrearen Sukarra" ("The Gold Rush") filmarekin zine kontzertu baten prestatzeko gogo piztu zauku. Xare laborategiko Orkestrarekin lan egitea ebidentzia izan da hainbeste ekitaldi arrakastatsuen partekatzeko parada izan baitugu elkarrekin. Bestalde, gaualdiaren lehen partean, Baigorriko 1960 eta 1980 urteen artean hartutako bideoekin egindako filmaño bat eskainia izanen zauzue. Orduan jaz bezala, Txaber Fernandezek zuzendutako orkestraren eskutik musikatuak izanen dira Charles Chaplinen "Urrearen Sukarra" filma eta Baigorriko irudi zaharrak.

Zine-kontzertuko afitxa:



Apirilaren 26an, egun osoan, Nafarroaren eguna, Baigorriin



The poster for Nafarroaren Eguna 2020 features a central illustration of three figures in traditional Navarrese attire. On the left, a man in a red tunic and crown; in the center, a woman in a blue and gold dress with a crown; and on the right, a woman in a blue dress. They are standing in a field of yellow flowers. A small inset shows a tree with roots. The text '26' is in a green circle, 'NAFARROAREN EGUNA' is in large red and yellow letters, and '2020' is in black. The word 'BAIGORRI' is at the bottom left of the illustration. The entire poster is framed by a gold chain and a green leafy border.

APRILAREN 26

NAFARROAREN EGUNA

2020

BAIGORRI

IRRATIAK berria ARGIA euskalerrirratia

BASIZEA